

GAIXOEN ALDEKO KANPAINA 2025

JUBILEUA 2025: “ITXAROPENAREN ERROMESAK”

“Itxaropenean gaude salbatuta” (Errom 8,24)

Aurten, 2025ean, Jubileu urtean izango dugu Gaixoen aldeko kanpaina. Frantzisko aita santuak “Itxaropenaren erromesak” leloa proposatu digu Jubileu honetarako, eta gure kanpainaren lelo bihurtu dugu, horrekin bat datorren gai batekin: Itxaropenean gaude salbatuta (Errom 8, 24).

2024ko Gabon gauean, Eguberri bezperan, San Pedro Basilikako Ate Santua ireki zuen Frantzisko aita santuak, eta ofizialki ekin zioen Itxaropenaren 2025eko Jubileuari. Aita santuak elizkizunean adierazi zuenez, Jubileu urtearen hasiera honetan, “errukiaren eta barkamenaren garaian sartu gara, gizon eta emakume orori huts egiten ez duen itxaropenaren bidea azaltzeko (...) Ate Santua irekita, beste Jubileu urte bati eman diogu hasiera. Gutako bakoitza sar daiteke graziaren iragarpen horren misterioan (...) Opari hori hartzeko, bidean Belengo artzainen harridurarekin jartzera deituta gaude. Ebanjelioak dioenez, aingeruaren iragarpena jaso ondoren, "azkar-azkar joan ziren" artzainak. Horixe da galdutako itxaropena berreskuratzeko seinalea: gure barruan berritzea, azkar-azkar gure garaiko eta gure munduko atsekabeetan ereitea”.

“Arazoak ez dira falta, ez Elizan, ez munduan, ez eta familien eguneroko bizitzan ere. Baina Jainkoari eskerrak, gure itxaropena ez da iragarpen gertagaitzetan oinarritzen, ezta aurreikuspen ekonomikoetan ere, garrantzitsuak izan arren. Gure itxaropena Jainkoarengan dago, ez erlijiotasun generiko baten zentzuan, edo fedez mozturiko fatalismo baten zentzuan. Gu guztiok maitasunez eta biziz betetako bere erreinura gidatzeko, Jesu Kristorengan gizakiarekin egoteko, bere historia partekatzeko, denok bere maitasun eta bizi erreinura gidatzeko borondatea erabat eta behin betiko erakutsi duen Jainkoarengan sinesten dugu. Eta itxaropen handi horrek batzuetan gure giza itxaropenak zuzentzen ditu (...). Horixe da gizateriaren itxaropenaren benetako arrazoa: historiak zentzu bat du, bertan Jainkoaren Jakituria «bizi» delako. Hala ere, Jainkoaren xedea ez da automatikoki betetzen, maitasun-proiektu bat delako, eta maitasunak askatasuna sortzen duelako eta askatasuna eskatzen duelako. Egia esan, badator Jainkoaren erreinua, are gehiago, jadanik presente dago historian, eta, Kristoren etorrerari esker, gaiztoaren indar negatiboa garaitu du. Baina gizon eta emakume bakoitzarena da egunez egun (...) bere bizitzan hartzeko ardura. Jaunak gurekin batera «agindutako lurrerantz» aurrerapauso bat eman nahi duen bakoitzean, lehenik gure bihotzari deitzen dio; nolabait esateko, gu “bai” esan diezaiogun itxaroten du, bai erabaki txikietan, bai handietan” (Benedikto XVI.a, Angelus, 2010-I-3).

Beraz, graziazko misterio horretan murgiltzea da kontua, otoitzean Jaunarekiko intimitatean haztea. Horrela bakarrik, “Kristorengan zenbat eta sustraituago egon, Jesusengandik zenbat eta hurbilago egon, orduan eta baretasun handiagoa aurkitzen dugu” (Frantzisko aita santua, 2017ko Abendualdiko III. Igandeko Homilia), eta itxaropenerako, pozerako eta kontsolamendurako tresnak izan gaitezke gure gaixoentzat. Eurei eta zaintzen dituzten guztiei graziazko garai berezi hau bizitzen laguntzeko, “Jesu Kristo gure Jaunaren Aitaren, miseriordien Aitaren eta gure nahigabe guztietan kontsolatzen gaituen kontsolamendu ororen Jainkoaren Errukiak gainezka egin diezagun utzi beharko dugu, gu ere edozein atsekabetan aurkitzen direnak kontsolatzeko gai izan gaitezen, Jainkoak gu kontsolatzen erabiltzen duen kontsolamenduaren bidez. Izan ere, Kristorengatik jasan behar ditugun sufrimenduak ugari badira, ugaria da, era berean, Kristok ematen digun adorea. Guk atsekabeak jasaten baditugu, zuek adorea eta salbamena har ditzazuen jasaten ditugu; adorea hartzen badugu, zuek adorea har dezazuen hartzen dugu, adore honek eraginik iraupenez eraman ahal izan ditzazuen guk geuk ere eramaten ditugun sufrimenduak; guk atsekabeak jasaten baditugu, zuek adorea eta salbamena har ditzazuen jasaten ditugu; adorea hartzen badugu, zuek adorea har dezazuen hartzen dugu, adore honek eraginik iraupenez eraman ahal izan ditzazuen guk geuk ere eramaten ditugun sufrimendua. Eta zuengan daukagun itxaropenak oinarri sendoak ditu, bai baitakigu gure sufrimenduetan parte duzuenok adorean ere izango duzuela” (Kor II 1, 3-7).

Begira diezaiogun Mariari. “Berak, Deikundearen momentutik, «ama-maitasun ikaragarri» egon zen bere Semea, Jesu Kristo, noiz etorriko” (Abendualdiko II. Hitzaurrea). “Itxaropenaren ama. Santa Maria, Jainkoaren Ama, gure Ama, erakutsiezaguzu sinesten, itxaroten eta zurekin maitatzen. Adieraziezaguzu zuen erresumarako bidea. Itsas izarra, diz-diz egizu gure gainean, eta gida gaitzazu gure bidean” (Benedikto XVI.a, “Spe salvi” 50).

Subsidio liturgikoa

Gaixoen aldeko Mundu Eguna, 2025eko otsailaren 11

Egun pontifikala da, Espainiako Apezpikuen Batzarraren mendekoa eta nahitaezkoa. Aurten, otsailaren 11 ohiko denboraren V. asteko asteartea da. Hori dela-eta, egunari dagokiona edo “Lourdesko Ama Birjina Dohatsuaren oroigarri” izango da liturgia, nahiz eta erabilera pastoralagatik eliz errektorearen edo abadearen ustez “Gaixoen aldeko” formularioa erabil daiteken, OGMR 376). Hasierako monizioan, homilian eta otoitz unibertsaleko asmoan aipatu beharko da.

Hasierako monizioa:

Lehen Irakurgaiak esaten digun bezala, gizakiak leku berezia du sorkuntzan. Izaki horri buruz bakarrik esaten da: “Egin dezagun gizakia gure irudi eta antzekotasunera” eta “Jainkoak bedeinkatu egin zuen”. Gaixoak, bereziki, Gurutzean hildako eta Berpiztutako Semearen “irudia eta antzekotasuna” dira. “Kristoren anaia pazienteak” (CV II) dira, eta bereziki berrerospenari lotuak.

Ezin diegu horiei muzin egin; ezin gaitezke ardura formal batean galdu, bihotza jarri gabe, gaurko Ebanjelioan, Jesusek farisauei eta eskriba batzuei egindako gaitzespena jaso nahi ez badugu. “Itxaropen zantzuak eskaini behar dizkiegu beren etxeetan edo ospitaleetan dauden gaixoei, bisitan joaten zaizkien pertsonen hurbiltasunarekin eta jasotzen duten afektuarekin, haien sufrimendua arindu ahal izateko. Erruki-lanak itxaropen-lanak ere badira, bihotzetan esker oneko sentimenduak pizten dituztenak. Esker on hori osasun-eragile guztiengana ere irits dadila; izan ere, errazak ez diren baldintzetan egiten dute lan gaixoekin eta ahulenekin (*Spes non confundit* bula).

Izan gaitezen itxaropenaren eta kontsolamenduaren eramaile.

Fededunen otoitza:

Egin diezaiogun otoitz Jainko Aitari, berarengan jartzen baitugu gure itxaropena. Mariaren bidez egingo dugu, gaixoen osasunaren bidez, eta hauxe erantzungo dugu:

E. Zugar sinisten dugu, Aita.

- Elizaren alde: bere ama-bokazioa onartuz, bakarrik sentitzen diren guztiak bere baitan har ditzan eta Kristoren kontsolamendua presente izan dezan. **Egin dezagun otoitz.**
- Gaixorik dauden gure anaia-arreben alde: minaren misterioa sentituz, Ama Birjinaren presentzia hurbila eta amatasunezkoa senti dezaten. **Egin dezagun otoitz.**
- Gaixoen eta adinekoren zerbitzura dauden guztien alde: haien dedikazioa eta entrega Aitaren aurpegi errukitsuaren isla izan dadin, behar gaituenarentzat. **Egin dezagun otoitz.**

— Gure kristau elkartearen alde, gure parrokiaren alde: tristura pairatzen dutenen beharretatik hurbil egon dadin, benetako harrera, laguntasun eta zerbitzu etxea izan dadin eurentzat. ***Egin dezagun otoitz.***

Entzun, Aita, gure otoitza eta emaguzu Mariarena bezalako bihotz errukiorra, sufritzen ari diren gure anaia-arreben beharrei adi egon gaitezen eta, beldurrik gabe, haien ondoan egoteko konpromisoa har dezagun. Jesu Kristo gure jaunaren bitartez. Amen.